

ETORKINAK ETA EUSKARA

Lanari ekin, batak besteari eskaintzen dizkion aukerak baliatuta

Arazoa edo aukera. Migrazioa eta euskara elkarri begira jartzeko saiakerak egiten direnean, “migrazioa ala euskara” eztabaidak sarri topatzen du bidezidorren bat hizkuntza bera urkamendira daramana. Horregatik, hizkuntza aniztasuna «aukera» bat dela berretsi du Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko teknikariak. Gaineratu du zenbait adituk defendatzen dutela elebitasunak hizkuntza gutxituendako arrisku egoera sor dezakeen bezala, eleantiztasunak aukera gehiago eman ditzakeela. Aniztasun hori badago Euskal Herrian: 120 hizkuntza inguru hitz egiten dira lurraldean.

Asimilazioaren aldeko politikak bultzatu izan dituzte kasu batzuetan hizkuntza gailen argi bat daukaten estatuek –frantsesak, kasurako– eta etorkinak berekin dakarren hizkuntza poltsa, kultura, arpilatu. Berba bakarraren, autoktonoaren, mesedetan. “Apopilo”-tzat jotakoak ordaindu beharreko zerga.

Euskaraldiak, agian, egin dezake klik bat latinoamerikarri lehenengo hitza gaztelaraz esaten dion euskaldun autoktonoaren burmuinean, konturatzenean, Ahobizi edo Belarriprest txapa soinean daramala. Baina hizkuntza politika eta migrazioak hori baino konplexuagoak dira.

EAEko migrazio saldoa positiboa izan zen 2019an (19.468 pertsona), azken hogeitau urteetako kopururik altuena; haziz doa, beraz. Eustatek emandako datuen arabera, Bizkaia izan zen biztanleria gehien irabazi zuen lurralde historikoa, 11.217

 **EUSKARA /** Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Asimilazio saiakerak bazter utzita, migrazio saldoaren hazkundeak euskara eta egoera berean dauden hizkuntza gutxituak zabaltzeko abagunea ematen du, baina nola? Hor dago gakoa. Etorkinek ez ezik, gizarte osoak du egitekoa auzi horretan. Batzuek zein besteek agertu dute beraien iritzia ondoko erreportajeon.



herrikide gehiago, aurreko ekitaldian baino %60 gehiago; Gipuzkoak, berriz, 5.389 (%11,5), eta Arabak 2.862 jaso zituen.

Hiriburuak izan ziren etorkin gehien hartu zituzten udalerriak: Bilbora 4.856 pertsona mugitu ziren, Gasteizera 2.345 eta Donostiara 1.494.

2019ko urtarilaren 1ean, Estatuko espainiarretik kanpo jaio-tako 94.647 pertsona bizi ziren Nafarroan, biztanle guztien %14,56. Milagro (%27,6, migrazioaileak), Villafranca (%23,9), Funes (%23,6), Castejon (%21,1), Berriozar (% 19,7) eta Iruñea (%17) dira etorkin gehien dituz-

ten udalerriak. Etorkinen kopurua hazten ari da, eta gehienak hiriburuetan geratzen dira.

Hirigune horietan, eta baita Nafarroako Erriberako udalerrietan ere, gaztelera da nagusi. Soziolinguistika Klusterraren “Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak” azterlanean argitzen da gaztelania erabat nagusi den udalerrietan, lehen hizkuntza gaztelania dutenen %23k soilik ikasten dutela euskaraz hitz egiten.

Bestalde, “sandwich efektua” aipatzen da ikerketa berean: maila ekonomikorik baxuene-

tako eta altuenetako biztanleen hizkuntza nagusia gaztelania da, maila ertainetan du euskarak babes gehiago. Etorkin ugariaren maila ekonomikoa beheko atalaseari dagokio, hortaz, euskarara gerturatzeko zailtasun gehiago izan ditzake-te.

Belen Urangak datuok zehaztu ditu, halere. Azpimarratu du migranteak sakabanatuta daudela lurralde osoan. «Egia da hiriburuetan proportzio handiagoa dagoela, baina eskualde guztietan jatorri atzerritarreko biztanleen proportzioa %9-10 bitartekoa da», esan du.

Urangaren ustez, hizkuntza politikak diseinatzeko orduan, etorkinen jatorriaren ezaugarriak bereizi behar dira, eta horien arabera estrategia landu. Gaztelania dakarten etorkinek, hiztun askoko komunitateek edo hiztun gutxiko hizkuntzak dakartzatenak errealtate desberdina aurkezten dute.

«Hizkuntza aniztasuna berez da ona, aukera bat izan behar du. Baina gurea bezalako lurralde batean, non hizkuntza bat biziberritze prozesuan dagoen, kontuan hartu behar dira parte hartzen duten aldagai guztiak. Guk planteatzen duguna da harrera gizarteak ulertu behar duela datorren aniztasuna eta modua bilatu behar du hemen dagoen prozesua hauspotzeko. Migrazioa ez da berria. Tokatzen zaigu konplexutasun ikaragarri baten aurrean plangintzak ondo egitea, ondo ezagutzea zein den egoera eta tresna guztiak ematea migranteak hizkuntzaren biziberritze prozesura batu daitezzen», agertu du Belen Urangak.

Politika horiek martxan jartzeko lehenengo pausoa, bestalde, inbertsioa da Soziolinguistika Klusterreko teknikariaren aburuz.

KATALUNIA EREDU

Etorkinak hizkuntza gutxitutara gerturatzeko ahaleginean politika eraginkorrak bultzatu dituzten lurraldeen bila, Kataluniari begiratzen diote Soziolinguistika Klusterretik. «Beraiek hasi ziren aintzat hartzen eta jakin nahian zein hizkuntza hitz egiten ziren, zeintzuk ziren haien ezaugarriak; aitorza bat egin zuten. Bestalde, katalanen ikuspegitik, erakunde publikoek izugarriko programak, baliabideak eta plangintzak abiatu zituzten eta egiten dituzte orain

ere, udalerriz udalerrri. Plan-gintza horiek etorkinei begira bai, baina katalanei begira ere egiten zituzten. Ezinbestekoa da gure gizarteari begirako politika publikoak egitea», azaldu du Urangak.

Neurri horiei esker eta katalana erdigunean jarrita, gizartea sentsibilizatzea lortu da aniztasun horri harrera egiteko, «haiek eta gu» ideia alboratuz, «gu» zabal baten alde. «Hori litzateke gure helburua –gehitu du–: euskara erdigunean jarrita, hizkuntza aniztasunaren kudeaketa egoki bat egitea».

INTERESAREKIN, AHOBIZI

Etorkin bakoitzak euskararekin harreman oso diferentea izan dezake. «Ez dugu pentsatu behar migrazioa kaltegarria denik. Kanpotik etortzen gare-nok, askotan, interesa eta grina jartzen dugu, batzuetan bertakoek baino gehiago. Ikasi dudanean, betidanik topatu dut, ni bezala, kanpotik etorri eta euskara ikasi duen jendea. Nire migrazioa, beste batzuekin konparatuz, oso desberdina da. Batzuk hizkuntza askorekin datoz, eta uste dut asko daukagula ikasteko beraiengandik eta beraien hizkuntzetatik», adierazi du Maggie Bullen EHuko Antropologiako irakasleak.

Ia 30 urte dira Maggie Bullen Britainia Handitik Euskal Herrira etorri zenetik, Liverpoolen gizon euskalduna ezagutu eta haren lurraldera mugitu baitzen. Filosofia ere ikasitakoa da Bullen, eta gaztelania eta frantsesa ziren bere «mundua», harik eta euskara deskubritu zuen arte. Deskubritu, ez zuelako ezagutzen. «Ez nekien ezer euskarari buruz», dio.

Euskarak «beste mundu bat deskubritzeko aukera» eman zion, harreman pertsonalak



Ezkerreko argazkian, Haur Eskoletan euskara bermatzearen alde Iruñean egindako manifestazioa. Goian, Irungo Harrera Sareko kide bat ama-alaba etorkinekin. Iñigo URIZ; Gorka RUBIO | FOKU

garatzekoa. Eskolak hartu zituen, «mota guztietako euskaltegietan». Orain, Euskaraldian parte hartzen du, Ahobizi da. EHuko dekanotza taldean arigune bat sortu dute, Afit Antropologia Feminista Taldean beste bat. Lehenago ere euskaraz jarduten zutela esan du, baina Euskaraldiak barne praktika hori ikusarazteko aukera ematen duela.

«KAIXO» DA GAKOA

Burgoskoa da Natalia Perez, baina Madrildik etorri zen Bilbora, orain hiru urte, bikotekide do-

nostiarrengana hurbiltzeko. Euskal Herrira iristean Gabriel Aresti euskaltegian eman zuen izena, «hemengo hizkuntza ezagutzea etorkizunerako ona» izan zitekeela iritzita. Ezerezetik hasi zen, «kaixo»-ren esanahia jakin gabe, eta ez zen erraza izan. «Hasieran, uztekotan egon nintzen, horrela ikastea ezinezkoa iruditzen zitzaidalako», onartu du burgostarrak. Baina ez zituen eskolak utzi; hasi eta bi urtera C1 hizkuntza agiria ateratu zuen, ez etsitzeagatik.

Dena berria zuen euskararen munduan. Egunero bost orduko eskolak hartzen zituen euskaltegian eta etxean luzatzen zuen ikasketa denbora. «Nire euskaltegiko kideek, hemengoak izanik, gauza asko zekiten nirekin alderatuta, baina nire indarra zen ez zidala lotsarik ematen txarto hitz egiteak eta lehen egunetik hasi nintzen euskaraz hitz egiten; hori zen gakoa niretzat», azaldu du Perezek.

Hala, «edozein aukera» aprobetxatzen du orain ere euskara

praktikatzeko, «supermerkatuan, botikan», ahal duen guztietan, hitz eginez, ikasiz. Euskaraldian izena eman du, bi urte atzera egin zuen moduan. Lehen edizioan B2 hizkuntza maila lortu zuen, euskaraz hitz egiteko gai zen, «akatsekin» mintzatu arren. Horregatik, ez zuen ulertu orduan bere ikaskideek Belarriprest izateko egin zuten hautua, haiek ere gai baitziren euskaraz berba egiteko. Ahobizi txapa jantzi zuen Natalia Perezek, eta berdin egin du aurten, Euskaraldiaren bigarren edizio pandemiko honetan.

Amaitzeko, gogoeta bat eskaini du bere esperientziak jantzia: «Iritsi nintzenetik entzun dut euskara oso zaila dela, hitz egiten ez duen jendeak hori esan ohi du. Ezagutzen ez dugunez, beldur apur bat ematen digu eta zaila iruditzen dakiguke, baina nik badakit gogoz eta denboraz eginez gero, euskara jendeak uste baino askoz errazagoa dela. Lehen urratsa 'kaixo' esatea da».

Belen Uranga: «Egia da hiriburuetan proportzioa handiagoa dela, baina eskualde guztietan jatorri atzerritarreko biztanleen proportzioa %9-10 bitartekoa da»

Maggie Bullen: «Ez dugu pentsatu behar migrazioa kaltegarria dela. Kanpotik etortzen gare-nok, askotan, interesa eta grina jartzen dugu, batzuetan bertakoek baino gehiago»